

Etxaburuurrekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Etxáburu



43°10'51"

2°34'33"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... una casa conocida con el nombre de Echaburuurrecoa sita con su solar y huerta contigua que le corresponde en el Distrito del Norte y Cofradía de San Lorenzo jurisdicción de Berriz... comprende con su solar y huerta una medida superficial de doscientos seis estados o sean siete áreas con ochenta y siete centiareas...”
DJE 4/29 or. (1879)

Berriz elizateko iparraldeko barrutian (jabego-
eskrituretan agertzen den moduan) kokaturik
dugu baserri-etxe hau. Erroldetan eraikin ho-
nen gaineko aipu gutxi aurkitu ditugu. Bali-
teke alboan duen *Etxaburu* (**Ikus Etxaburu**)
baserriarekin batera agertzea, ahozko formak
biltzean ere behin baino gehiagotan etxe hau
Etxáburu moduan jaso baita.

XIX. mendeko etxea da, hiru solairutan jasoa
eta lau isurkiko teilatuduna. Beranduago bes-
te eraikin bat erantsi zioten, eskumaldean,
etxe erdi bat balitz moduan. Etxe biak garaiko

etxeen antzera eraikita daude, harlangaitzezko
hormak luzituta eta pintatuta, eta harlandu
ederrekin kantaletan eta bao guztietan. Na-
gusia oso etxe ordenatua da, erdiko ardatza
izanik antolatzaile eta erakargarri. Sarrerako
atea erdian dago, zabala oso, eta ateburua do-
beladun dintela da. Gainean, leiho luzea du,
karel eta guzti. Bi pisuetan, aldamenetan, leiho
bana dauka, eta hirugarren pisuan, hiru leiho.
Ondokoak eskema berari jarraitzen dio; baina
ganbaran leiho bat baino ez dauka, isurki bate-
ko teilatua izanik, forma horri egokituta dauka-
lako fatxada.

toponimia

Izen honek dituen osagaiak argi eta gardenak dira, etxe, hitz konposatu zaharretan etxa bihurtzen zena eta buru, “gain”
adierarekin. Euskal fonetikaren lege baten arabera hitz konposatuetan bi silaba duten hitzek -a hartzen dute amaieran
eta, esaterako, baso eta pago konposatuetan basa eta paga bihurtzen dira (basakatua, pagadia). Etxe izenarekin gauza
bera gertatzen zen eta etxa-ra aldatu, baina oso izen gardenak denez arrunta da geroago berriro etxe bihurtzea eta,
esaterako Elorriko San Agustin Etxebarria antzina Etxabarria zen. Izenaren bigarren osagaiak Etxaburu etxearen au-
rrean egindako etxea dela adierazten du.